# OPORRAK 2003





AMOROTOKO E.P.









# *AURKIBIDEA*


**4- UNAI GABIOLA**
**5- NAIARA ELORDI**
**6- MARTZEL NAVARRO**
**7- ZIORTZA KORTABITARTE**
**8- NAIA ITURRARAN**
**9- MIKEL ARRIZUBIETA**
**10- AITOR AROSTEGI**
**11,12- LEIRE JUARISTI**
**13- MAPAK**
**14,15- JOSU IMAZ**
**16,17- EGOITZ ELORRIETA**
**18,19- GURUTZ ARRIAGA**
**20,21- ANTXON GABIOLA**
**22-26- HAUR HEZKUNTZA**

# NIRE OPORRAK 2003:UNAI

**AURTEN OPORRETAN LANTZIEGON EGON GINEN. IGERILEKURA JOATEN GINEN. GAUEZ KALERA JOATEN NINTZEN JOLASTERA ETA NIRE GURASOAK KAFEA HARTZEN EGOTEN ZIREN.**


















# NIRE OPORRAK 2003:NAIARA

**AURTEN , OPORRETAN SALOURA JOAN NINTZEN . GOIZEAN, EGUNERO HONDARTZARA JOATEN GINEN . HOTELERA JOATEN GINEN BAZKALTZERA ETA BAZKALDU ONDOREN IGERI LEKURA JOATEN GINEN . EGUN BATEAN PORT ABENTURARA JOAN GINEN. BARRAKETAN IBILTZERA JOAN GINEN ETA BAZKALORDURAKO HOTELERA ITZULI GINEN. GABAZ AFALDU TAKOAN BERRIRO PORT ABENTURARA JOAN GINEN.**

**UDAN BASERRIRA JOATEN GINEN JOLASTERA.**

**LEKEITIORA ERE JOAN NINTZEN BARRAKETAN IBILTZERA.**



# NIRE OPORRAK 2003: MARTZEL



NAFARROARA JOAN NINTZEN BASERRI BATERA .BERRO ZURI DEITZEN DA. ERREKARA JOATEN GINEN EGUNERO IGERI EGITEN GENUEN ETA BERTAKO ARBOLA BATEN TXINTXONGA BAT JARRI GENUEN.ARIZKUNERA ERE JOATEN GINEN FRONTOIRA PELOTAN JOLASTERA. ETA KAMPINEAN EGITEN GENUEN LO. ETA ETORRI GINENEAN GURE BASERRIAN JOLASTEN NINTZEN.

LEKEITIOKO JAIETARA JOAN NINTZEN TIRO PITXOIAN IBILTZEN NINTZEN AUTOTXOKEETAN ERE IBILTZEN NINTZEN ETA SKALEXTRIAN ERE BAI.
















# OPORRAK 2003

ANGELUTXORA JOAN NINTZEN EGUN BATZUK PASATZEN ETA PISZINAN IBILTZEN GINEN EGUNERO. EGUN BATEAN ANGELUTXURA JAIETAN JOLASTU GENUEN. KURSO HASIERAN ARNEDILOKO HOTELERA JOAN NINTZEN PISZINAN ANAZ JOLASTU GENUEN ETA ILUNTZEAN AFALTZERA JOAN GINEN. BESTE EGUNEAN, BERRIRO PISZINARA JOAN GINEN.



EGILEA: ZIORTZA KORTABITARTE

AURTEN OPORRETAN LEKEITION EGON NAIZ.
EGUN BATEAN AMA,AITA , IZEKO,LEHENGUSINA ETA BOSTOK PORTUTIK BUELTA BAT EMAN GENUEN.
GERO OLETARA JATERA JOAN GINEN.
ARRATSALDEAN BERRIZ LEKITXORA.
BESTE EGUNEAN AMA,AITA ETA HIRUROK AZPEITIAKO AÑOTA JATETXERA JOAN GINEN ETA ARGAZKI ASKO EGIN GENUEN ETA OSO ONDO PASA GENUEN.
ASKOTAN BASERRIRA JOAN NAIZ IGERILEKUAN IBILTZERA ETA TXAKURREKIN JOLASTERA.
LEKITXOKO JAIETAN AMUMAREN ETXEAN EGON NAIZ ETA OSO ONDO PASA DUT.
AZKEN EGUNEAN IRATIREN BOTADURAREN BAZKARIA EDUKI GENUEN.





joaten ginen igerilekura,goizez eta arratsaldez.
Bigarren astean nire osaba eta izeko eta La Guardiara joan ginen.La Guardian antzerki bat ikusi genuen eta Lantziegora itzuli ginenean afaldu egin genuen.
Bigarren asteko zapatuan nire aita eta ama joan ziren Amorotora eta ni osabekin gelditu nintzen.Laugarren astean berriz nire aita eta ama etorri ziren eta nire osabak joan ziren.Gu ere laugarren astea amaitu eta gutxira joan ginen Amorotora.
Irailaren 1ean Lekeitioko jaiak hasi ziren.Irailaren 5ean antzar eguna izan zen baina ni arratsaldean Lantziegora joan nintzen han ere jaiak zirela eta.8an eskolara.

Oso ondo pasatu nuen.

EGILEA: ANTXON GABIOLA

# OPORRAK 2003

Uztailaren, 11an nire urtebetetzea izan zen.Uztailean, pirineo katalanetan egon naiz kanpin batean ,kanpinean igerilekua,dutxak eta komunak,jinazioa,futbol zelaia, denda eta taberna bat dago.Bertan mendirik mendi ibili ginen eta aintzira ugari ikusi genituen.Hiru garren egunean erreka batera joan ginen eta bainatu egin ginen,ni eta Ibon izan ginen lehenak sartzen.Hurrengo egunean bokata batzuk hartu eta erreka ondora bazkaltzera eta bazkaldu eta gero berriro bainu bat hartu genuen.Azken egunean kanpinak batu,maletak egin eta etxera.

Abuztuan Lantziegora joan ginen,heldu eta segituan igerilekura joan ginen zegoen beroarekin.Egunero bi aldiz





# NIRE OPORRAK 2003:MIKEL

NIRE OPORRAK 2003:MIKEL




**NI OPORRETAN AMOROTON GELDITU NAIZ.**

**EGUN BATEAN, ARRANTZAN JOAN GINEN GALDER, AITA ETA HIRUROK ETA ARRAIN ASKO HARRAPATU GENITUEN .**

**BESTE EGUN BATEAN, AGARREN JOSUK ESKABADORA BAT ETA TRAKTORE HANDI-HANDIA EKARRI ZITUEN.**

**GERNIKAKO JAIETARA JOAN NINTZEN ETA OSO ONDO PASA GENUEN. IZEKO, OSABA ETA LEHENGUSUAK ETORRI ZIREN ETA IA EGUNERO HONDARTZARA JOATEN GINEN.**

**NI EGUNERO BASERRIRA JOATEN NINTZEN ETA OSO ONDO PASATZEN NUEN.**

NIRE OPORRAK 2003:AITOR

**Aurten La Guardian hotel batean egin dugu lo. Hotelean maletak itxi eta gero pasiada bat egitera joan ginen eta gero afaltzera joan ginen. Jandakoan kola kao edan genuen. Gero kartetan ibili ginen. Anjel Abadea ikusi genuen eta geroago ohera joan ginen. Hurrengo goizean jantzi eta gero gosaltzera joan ginen. Gosaldutakoan kotxera joan ginen sandaliak jantzi eta gero pasiada bat emotera joan ginen eta txintxongetan ibili ginen. Geroago argazki batzuk atara genituen eta gero tia Bakarneri deitu genion eta esan genion joango ginela Eskaraira arratsaldean.Orduntxe hotelean maletak hartu genituen eta kotxera joan ginen. La Guardiatik alde egin genuen eta herri baten aitak eta amak kafea hartu zuten eta guk mosto hartu genuen. Eskaraira ailegatu ginenean kalera joan ginen eta kalean gozokiak erosi genituen eta gero buelta bat emon genuen . Gauean afaria jatera joan ginen gero telebista apur bat ikusi nuen, eta berriro kalera joan ginen eta pipak jan genituen. Eta gero buelta bat emon genuen eta gero etxera joan ginen eta etxean kola kao edan genuen tiak eta biok. Gero ohera joan ginen eta goizean zazpi eta erdietan esnatu nintzen. Gosaltzerako napolitanak erosi genituen. Gosaldu eta gero tiaren etxera joan ginen. Mosto bat hartu, buelta bat eman eta bazkaltzen joan ginen. Lehenengo entsalada jan genuen. Gero oilaskoa eta nire aitak behiaren buztana. Ainhoa eta biok izozkia ere jan genuen eta gero Urkiolara iritsi ginenean putre bat ikusi genuen hilda gero. Aborora ailegatu ginenean, bokadilo handi - handi bat jan genuen den –denok.**





ikusi genituen.

Gero hotelera joan ginen eta gaueko emanaldia ikusi genuen.

Irailaren 23-an, hoteleko igerilekuan buzeoa egin nuen. Buzeoa egiteko lehenengo oxigenoaren botila jartzeko txaleko handi bat jantzi nuen.Gero uretako betaurrekoak,aletak eta beste hainbat gauza jantzi behar izan nituen.

Irailaren 24-an etxera itzuli ginen Benidormetik . Gero etxera heldu ginenean Egoitz etorri zen,butroiarekin harrapatu genuen karramarroa erakustera.Handik ordubetera osabarekin mendira joan nintzen lau gurpileko motorrean. Handik ordu erdira katu kumeak ikustera joan nintzen.Gero bideo bat ikusi nuen.Afaldu kolakaoa hartu eta lotara joan nintzen.

Egilea:Gurutz Arriaga



# OPORRAK



Aurten oporretan Benidormen egon naiz.
Irailaren 17 an " Mundomar"era joan ginen ama, izeko, eta hirurok. Lehenengo papagaioen emanaldia ikusi genuen. Geroago foken emanaldia ikustera joan ginen. Handik ordubetera pinguinoen emanaldia ikustera joan ginen. Azkenean izurdeen emanaldia ikusi genuen.
Irailaren 22 an " Terra Mitica" ra joan ginen Lander eta biok. Han Tizonan, Kaida libren, Kolosusen, Kanoetan, Cataratas del Nilon, Kalizon, Estanpidon montatu ginen. Gero jan eta antzerkien emanaldiak



## NIRE OPORRAK 2003: LEIRE

**Aurten oporretan Tarragonara joan naiz.Han oso ondo pasatu dut.Aitak han egi-
ten du lan eta noski etxea du.Guk
etxe horretan egiten genuen lo.
Sarritan egoten nintzen piszinan
jolasten baita hondartzan ere.
Nik Tarrago- nan nire aitaren
lagun baten alaba laguna dau-
kat.Nik baino urte bete gaztea-
goa da.Ainhoa du izena eta haiek
egun batean nire etxean lo egin
zuen.Hurrengo goizean piszinan
jolasten egon ginen.
Beste egun ba- tean ni ere bere
etxera joan nin- tzen lo egitera.
Egun horretan eurekin kanpoan
jan nuen.Gero euren etxean
afaldu, telebista ikusi eta lo egin ge-
nuen.Hurrengo goizean piszinara
joan ginen eta bazkaltzeko nire
gurasoak etorri ziren.Beste egun
batean Ainhoa- ren gurasoak, bere
ahizpa eta nire etxekoak portuko
taberna batean afaldu genuen eta
beste egun ba- tean Ainhoa eta
biok patinekin portuan jolastu gi-
nen.**



**Arratsalde batean Ainhoarekin hondartzara joan ginen.Han asko jolastu nuen. Askotan herrira joaten ginen paseo bat ematera eta denbora pasatzera. Herrian beti izozki bat jaten nuen eta egun batean eskolarako bata erosi genion nire neba Josuri.Amak eta biok eguzkitako betaurrekoak erosi nahi genituen baina ez genuen astirik izan.Bueno ,datorren urtean 2004an izan beharko.Askotan hiper eroskira joaten ginen. Han imajinarium denda bat dago han hondartzarako 2 kubo, 2 rastrillo eta 2pala erosi genituen Josu eta Nerentzat .Beste egun batean amak 2 niki erosi zituen. Gauetan nire gurasoak uste bazidaten kanpora irteten nintzen jolastera nire lagunekin.**

**Abuztuaren 24an nire urtebetetzea da eta horregatik abuztuaren 18an Amorotora etorri nintzen.Nire urtebetetze egunean hau oparitu zidaten:erloju dijitala, motxila, Bratz Sahsa, jertse urdina, puzzlea, telefonoa apuntatzekoa, egunerokoa eta**

**boligrafo winipunena.**
**Irailak 1,2,3,4,5,6,7 eta 8an Lekeitioko jaiak dira.Aurten ezin izan ditut bo-landerak ikusi baina etxetik entzun nituen.**
**Irailak 6an nire merendola egon zen tabernan.Oso ondo pasatu nuen eta asko jolastu nuen.Ene!!! Ahaztu egin zait!**
**Urtarrilaren 1etik 15era ingelesean apuntatu nintzen eta ondo pasatu nuen.**
**Oso ondo pasa ditut oporrak.**










# OPORRAK 2003



**Aurten oporretan Gernikara joan nintzen nire osaba-izekoen etxera. Ekainaren 28an joan nintzen. Gehienetan Fruizko igeri lekura joaten nintzen. Nire lagunekin. Gero futbolean ibiltzen ginen. Baita pinponean ere. domekero esku pilotan ibiltzen ginen. Batzuetan baserrira joaten nintzen. Fruizko jaiak izan zirenean ken7 ikustera joan nintzen. Ainhoa, Irati, Ander eta nire osaba-izekoak eta seiok joan ginen.**
**Udako egun batean, Lekeition Errusiatik etorri zen itsasontzi bat ikusi nuen itsas barnean 40 metrora aurkitu zuten.**
**Guk Lekeition egiten dugun txapelketan galdu egin nuen 8garren gelditu nintzen.**



**Egilea:Egoitz Elorrieta**








# NIRE OPORRAK : JOSU



Aurtengo udan, Liedena izeneko herri txiki batera joan ginen. Bertan hotel batean gelditu ginen lo egiten lau egunetan. Egunero, egunero igerilekuan eta frontoian ibiltzen ginen eta nire aita gurekin ibiltzen zen frontoian eta ama eguzkia hartzen egoten zen. Igerilekutik, irteten ginenean telebista ikusi eta komedorera joaten ginen jatera.

Hurrengo goizean, herri txiki pila-bat ikusi genituen, guztira hamalau bat herri. Gero Belagua izeneko mendi batera joan ginen, bertan ardi pila egon zen eta behiak ere bai. Hotz asko zegoen eta gu mendiaren punta puntara igo ginen. Mendian behera gindoazela 300 bat ardi pasatu ziren bide erditik, guk ea denak ikusi genituen. Gero Isabara joan ginen jatera, nik espagetiak



jan nituen. Isaban oroigarriak erosi genituen denentzako. Herri batean, Rokaforten, jaiak ziren eta bertara joan ginen. Han inor ez zen egon eta hotelera joan ginen. Hurrengo goizean, Zaragozara joan ginen, bertako jaiak zirelako. Arratsaldean, igerilekuan eta frontoian ibili ginen eta gero telebista ikusi genuen. Afaria jan eta lo egin genuen . Hurrengo goizean etxerantz abiatu

